

Gezala
AUDITORIUMA

K u l t u r h o t s a k

AZOKA


OROITZENE A.E.K.

EUSKAL LIBURU ETA DISKEN AZOKA

Abenduaren 11tik 24ra

11:00-13:00 eta 17:00-20:00


KULTUR ARETOA (DONIBANE KALEA 2)



Lezoko zine agenda

ABENDUA DICIEMBRE

2006



AUDITORIUMA

zine a 800



Lezoko Unibertsitateko
Udala

AUDITORIUMA

Gezala

ABENDUA - diciembre

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 7	22:00	2046
LARUNBATA 9	16:30	HARTZ TXIKI
OSTEGUNA 14	22:00	CÓDIGO 46
LARUNBATA 16	16:30	DORAEMON ETA MAIEN INPERIOA
OSTEGUNA 21	22:00	12 MONOS
LARUNBATA 23	16:30	BALOIA
OSTEGUNA 28	22:00	EL QUINTO ELEMENTO
LARUNBATA 30	16:30	POXPOLO, MOKOLO TA KONPAINIA. ESKOLA FESTA

KULTUR HOTSAK


A.E.K. OROITZENE EUSKALTEGIA

11TIK 24RA	10:00-13:00 17:00-20:00	EUSKAL LIBURU ETA DISKEN AZOKA
------------	----------------------------	-----------------------------------

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**


OSTEGUNA • jueves



2046

"In The Mood For Love" historiko hura eta gero, Wong Kar Wai-k pelikula hau burutu zuen. Idazle baten istorioa kontatzen da oraingo honetan. Idazle horren nobelan tren bat 2046 urtera joaten da. Tren horretara igotzea erabakitzen duten bidaia-ri guztien helburua berdina da: galdutako oroimena berreskuratzea. Inork ez zekien hori egia zen edo ez, urte horretara bidaia-ri zuten guztiak ez ziren bueltatu, bat izan ezik...

2004, Txina, Hong Kong, Frantzia 129 min. Wong Kar-wai.
Li Gong, Tony Leung, Chiu Wai, Takuya Kimura, Faye Wong.



CÓDIGO 46

Etorkizunean kokatutako gizartearen gobernuak kontrol gogorra ezartzen die biztanleei. Bidaia-ri nahi duen orok kontrol neurri amaiezina pasa beharko ditu eta aseguru berezi bat eraman berarekin. William hiri batera bidaliko dute iruzur kasu bat argi dezan. Ikerketa lanetan ari dela, faltsutzaile lanetan diharduen Maria ezagutuko du eta nola ez! Maitemindu egingo da. Edonola aseguruak irauten dituen 24 orduak baino ezingo dute elkarrekin egon.


2003, Erresuma Batua. 92 min. Michael Winterbottom.
Tim Robbins, Togo Igawa, Nabil Elouhadi, Samantha Morton, Sarah Backhouse.



12 MONOS

2035. urtea da eta gizakiak lur azpian bizi dira. 1997an eratutako birus batek populazioa ia desagerrarazi egin zuen. Agintariekin denboran bidaia-ri urte horretara joan nahiko dute birusaren lagin bat lortzeko. Denboran zehar bidaia-ri teknika oso garatua ez dutenez, 'abenturazale' bat beharko dute: James Cole (Bruce Willis). Kartzela zigorra gutxitzearen truke prest azalduko da lan hori egiteko. Denboran bidaia-ri bai, baina 1990era iritsiko da. Hori izango du lehen arazoa...

1995, EEBB. 129 min. Terry Gilliam.
Bruce Willis, Joseph Melito, Jon Seda, Michael Chance, Bob Adrian.




EL QUINTO ELEMENTO

5.000 urtetik behin ate bat irekitzen da dimentsio ezberdinen artean. Dimentsio batean lurra eta unibertsoa daude, bestean inork ezagutzen ez duen elementu bat: bosgarren elementua (ez da ez sua, ez ura, ez airea ezta lurra ere). Elementu horrekin gaizkia desagerrarazi dezakete. Beti bezala, gaizto taldea, neska polita, abenturazale astapotroa... Betikoa baina Bessonek gauzak egiten dakien bezala... Zientzia fikzio Frantsesa... Jada, ia klasiko bat!

1997, Frantzia. 126 min. Luc Besson.
Milla Jovovich, Bruce Willis, Gary Oldman, Ian Holm, Mathieu Kassovitz.

LARUNBATA • sábado



HARTZ TXIKI

Marrakzi bizidun hauetako protagonista Hartz Txiki da, hartz ameslari bat. Pelikula honetan Hartz Txiki eta bere lagunak abenturak ikusteko aukera izango duzue. Jakin min eta irudimen handiz leku berriak ezagutzera joango dira, eta gauza liluragarriak gertatuko zaizkie. Ama ez da inoiz urrun ibiliko. Ez galdu Hartz Txikiren mundu liluragarri eta dibertigarria!

1996, Kanada 70 min. Raymond Jafelice.
Marrakzi bizidunak.



DORAEMON ETA MAIEN INPERIOA

Nobita eta Doraemon eskolarako antzerki saioa prestatzen ari direla denboran zehar bidaia-ri dute maien inperioaren erdiguneraino iristen direlarik. Oihanaren erdian ezkatutako zibilizazioa da maiena. Bertan Thio izeneko printzea ezagutuko dute. Ordura arteko guztia harrigarria bada ere, harrigarriena Thio eta Nobita berdin-berdinak direla da. Gertakizun hori eta taldearen ausardia, maien zibilizazioaren aurka dabilen sorginari aurre egiteko tresnak bilakatuko dira.

2003, Japonia 87 min. Fujiko F. Fujio.
Marrakzi bizidunak.



BALOIA

Sophia hamaika urte dituen haurra da. Bere lagun bakarra Mingus izeneko zakurra da. Egun batean ijito zahar batekin egingo du topo. Honek bere bizia erabat aldaraziko duen larruzko baloi zahar bat oparitzen dio: bai baloiak botere magikoak ditu! Inguratuko ote zaizkio lagun berriak?

1990, Belg., Alem., Hol. 90 min. Danny Deprez.
Ernst Low, Michael Pas, Marjje Ceulemans, Jonas De Ro.



POXPOLLO, MOKOLO TA KONPAINIA. ESKOLA FESTA

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak izan ziren aitzindariak Euskal Herriko agertokiak azaltzerako garaian. Ondoren Takolo, Pirritx eta Porrotx edota Lezon Korri, Xalto ta Brinko ezagutu ditugu. Pailazo labekada berri horretakoak dira Poxpolo eta Mokolo ere. Gaurko honetan, Poxpolo eta Mokoloren konpainia Mr. Flores, Abebe edota Afrikako ehiztaria bezalako pertsonai bitxiak izango dira. Gure lagun pailazoak beti laguntzeko prest ageri badira ere, ikusiko duzu nolako iskanbilak antolatuko dituzten.

2005, EH. 60 min. Poxpolo, Mokolo ta Konpainia.

